



Aurkezpena otsailaren 21ean arratsaldeko 19:00etan Bilborock Aretoan

Farmamundik *Las que sobrevivimos* dokumentala estreinatuko du, sexu-indarkeriak emakumeen osasunean dituen ondorioei buruzko dokumentala

- Ugandan eta Kenyan errefuxiatuta dauden eta sexu-indarkeriatik bizirik atera diren Kongoko sei emakumeren istorioak biltzen ditu filmak. Farmamundik gerra guztietan emakumeek bizi duten tragedia horren aurka neurri eraginkorrak hartzeko beharra salatzen du.
- Itxaso Díazek zuzendutako GKEaren dokumental berria otsailaren 21ean aurkeztuko da Bilbon eta bertan izango da Eunice Ngwawe, Hesed Africako zuzendaria, Kenyan bizirik dirautenei babesa ematen dien tokiko erakundeetako bat.

Bilbo, 2024ko otsailaren 13a.- Farmamundik otsailaren 21ean estreinatuko du Bilbon bere azken dokumentala, *Las que sobrevivimos*, sexu-indarkeriak Kongoko Errepublika Demokratikoko emakumeengan eragiten dituen ondorioak erakusten dituen koru-kontakizun bat. Proiektzioa 19:00etan izango da, Bilborock aretoan. Proiektzioaren amaieran solasaldia izango da Itxaso Díaz dokumentalaren zuzendariarekin eta Eunice Ngwawe Kenyako Hesed Africako zuzendariarekin.

Sexu-indarkeria egungo gatazka armatu guztietan erabiltzen den armarik krudel eta suntsitzaileenetako bat da. Kongoko Errepublika Demokratikoaren kasuan, hainbat hamarkadatan gatazkak jasatearen eta erasotzaileentzako zigorgabetasunaren ondorioz, emakumeen eta nesken aurkako indarkeria gizartean kokatu da, eta sistematikoki gertatzen da, baita borroka amaitu den lekuetan ere. ACNURen datuen arabera, soilik 2020ko urtariletik irailera bitartean 6.200 sexu-indarkeria kasu baino gehiago salatu ziren herrialde osoan.

Baina emakume batzuek ez dute amore ematen eta ahotsa altxatzen dute beste inork istorio bera kontatu behar izan ez dezan. Emakume horietako sei [*Las que sobrevivimos*](#) dokumentalaren protagonistak dira. Itxaso Díazek Farmamundirentzako zuzendutako, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzaturako dokumentala da hau. Sexu-indarkeriak emakumeen bizitzan eta osasunean dituen ondorioak ezagutzeko leiho gisa balio du, eta, horrekin, nazioarteko erreakzioa eragin nahi dute indarkeria honi amaiera emateko asmoz.

Dokumentala Bilborock aretoan izango da lehen aldiz, otsailaren 21ean, 19:00etan. Estreinaldian Farmamundiko presidente den Sara Valverde eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendari den Paul Ortega Etcheverry izango dira.

Dokumentalaren emanaldiaren ondoren, **solasaldia izango da [Itxaso Díaz](#) zintaren arduradun dokumentalistarekin eta Eunice Ngwawe [HESED Africako](#) zuzendari exekutiboarekin.** HESED Africak Kongoko Errepublika Demokratikoko errefuxiatuekin lan egiten du Kenyan, eta generoan oinarritutako indarkeriaren prebentzioa, emakumeen sexu- eta ugalketa-osasuna eta GIB/HIESaren prebentzioa eta kontrola lehenesten ditu.

Sei itxaropen istorio

Kongoko Errepublika Demokratikoko indarkeriak milioika pertsonen desplazamendua eragin du, eta horietako askok babesa bilatu dute inguruko herrialdeetan, hala nola Kenyan eta Ugandan. 25 minutuko pieza zinematografikoak herrialde horietan errefuxiatuta dauden sei emakume kongoarren bizitza-istorioak biltzen ditu. Emakume horiek jatorrizko herrialdean jasan dituzten bortxaketek eragindako estigma fisiko eta emozionalak gaingintzeko borrokatzen dute.

Testigantzen gordintasuna gorabehera, dokumentalak emakume horien itxaropena ere erakusten du, tokiko erakundeetan beren bizitzak berreraikitzeke eta beren eskubideak eskatzeko laguntza aurkitu baitute. Sexu-indarkeriak gatazketan duen eraginari buruz hausnartzera gonbidatzen gaitu zintak, baita herritartasun global gisa hura amaitzeko izan dezakegun zereginari buruz ere.

Ekintza humanitarioa, salaketa eta sentsibilizazioa

Ikus-entzunezko lan hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzaturako ekintza humanitarioko estrategia baten parte da. Farmamundik Kenyan, Ugandan eta Kongoko Errepublika Demokratikoan tokiko erakundeekin batera garatzen du estrategia hau eskualdeko osasun publikoko egoera kritikoei erantzuteke, eta gatazkengatik desplazaturako milioika pertsona hartzen ditu.

Erakunde horiek honako hauek dira: Programme de Promotion des Soins pour la Santé Primaire (PPSSP), Foundation for Health and Social Economic Development Africa (HESED), Emesco Development Foundation eta African Humanitarian Action (AHA). Emakumeen aurkako indarkeria-kasuak prebenitzen eta horiei erantzuten saiatzen dira, eta bizirik dirautenei arreta psiko-sanitarioa eta soziala eskaintzen diete.

Errefuxiatuen osasunari arreta emateko estrategia integralaren barruan, salaketa- eta sentsibilizazio-dokumental hau sartzen da, emakumeen oinarrizko eskubideen urraketaren inguruan nazioarteko fokua jartzeko.

Proiektuaren webgunean <https://lasquesobrevivimos.farmamundi.org/> dokumentalaren trailerra ikus daiteke, baita emakumeen testuinguruari eta borrokei buruzko informazioa ere. Proiektoria azaldu direnek euren iritzia webgunean idatzi eta Farmamundik bere protagonistei helaraziko dien mezu bat utz dezakete.

Protagonisten aipuak:

Rafiki: "Errefuxiatu gisa bizi bagara ere, lehen oso bizimodu normala bizi genuen, ereiten eta uzta biltzen, jaten eta bizitza ona izaten".

Elyseen: "Emakumeak umiliatu nahi zituzten seme-alaben aurrean. Hori besterik ez".

Diana: "Sentitzen dudala esan nahi diet. Sentitzen dut gertatu zaiguna, eta haiek ere sendatzea nahi dut".

Cecile: "Ezin nien gurasoei gertatutakoa kontatu, nire kulturen tabua baita bortxaketei buruz hitz egitea".

Jeanine: "Inork ez luke amore eman behar bizitzan, aurre egin beharreko erronkak gorabehera".

Matesera: "Erronka horietatik eta sortu dituzten oroipenetatik igaro arren, bizitzak oraindik jarrai dezake".

Fitxa teknikoa:

Izenburua: Biziraun dugun emakumeok
Protagonistak: Jeannine Nyiramenyana, Cecile Mutimekeye, Elsyseen Mbuyi, Diana Muhindo, Matesera Kwizera, Rafiki Bichada
Generoa: Dokumentala
Iraupena: 25 min
Urtea: 2023
Zuzendaritza: Itxaso Díaz
Kamerak: Raúl Fernández de Pinedo eta Itxaso Díaz
Produkzio exekutiboa: Trini Anguita
Produkzioa: Farmamundi
Gidoia eta edizioa: Itxaso Díaz
Droia: Raúl Fernández de Pinedo
Musika originala: Isabel Fernández Riviriego
Soinuaren muntaketa eta nahasketa: Xanti Salvador
Bideoaren postprodukzioa: Alex Argoitia
Grafismoa eta kartelak: Querida Duska,

Dokumentalaren hautaketak jaialdietan

- Polonia: Let's Start the Revolution International Film Competition 2023
- Mexiko: InCorto Film Fest 2023
- Italia: Terni Film Festival 2023
- Ukraina: Dispatches of War 2023
- Australia: Colortape International Film Festival 2023
- Espainia: Akida International Film Festival for Schools 2023

Farmamundiri buruz

Farmamundi Garapenerako kooperazioko, ekintza humanitarioko, larrialdietako eta hezkuntzako nazioarteko GKE bat da, osasun integralaren sustapenean eta egoera ahulenean dauden herrialdeentzako farmazia-laguntzan esperientzia duena. Gaur egun, Espainiako lehen irabazi-asmorik gabeko erakundea da, larrialdietan sendagaiak eta osasun-materiala hornitzen espezializatua. Farmamundik 30 herrialdetan baino gehiagotan garatzen du bere jarduera humanitarioa, 130 osasun-proiektu aktibo baino gehiagorekin. <https://farmamundi.org>

Elkarrizketak eta informazio gehiago nahi izanez gero, jarri harremanetan:

Sonia Martín
sonia.martin@farmamundi.org
663 62 05 26

Trini Anguita
epd3.euskadi@farmamundi.org
664 29 01 66



<https://lasquesobrevivimos.farmamundi.org/>